

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nahiz eta aplikazioa gehienbat gazteei bideratuta egon, edonori zuzenduta egongo litzateke. Hala ere, gehienbat gazteak erabiltzeko diseinatuko genuke, teknologietan adituenak direlako eta sare sozialak erabiltzen dituztelako (hau garrantzitsua da, "influencerrak" arduratuko baitziren aplikazioa zabaltzez).

Aitzitik, aplikazioan izena ematerako orduan, erabiltzaileak haien adina jarri beharko dute eta gainera ze urtetatik ze urtera arteko lagunak bilatu nahi dituzten. Hau da, bezeroak hamazazpi urte izango balitu eta hogeiei eta hamabost urte arteko lagunak bilatu nahiko balitu, izen ematerako orduan hori jartzeko aukera egongo litzateke.

Honengatik guztiagatik, esan daiteke gure merkatu mota dibertsifikatutako merkatua dela. Azken batean, nahiz eta pertsona guztien helburua lagun bat bilatzea izan, pertsona bakoitzak bere gustuak jartzeko aukera izango du eta gustu antzekoak dituen pertsonekin lotuko genuke. Hortaz, bezeroek guztiek ez dute zertan gustu berdinak izan behar, hau da, ez dute lotura zehatzik izan behar behar.

